



www.astialdi.org

astialdiforoo.org, Euskadiko aisialdi hezitzaileko erreferentea bilakatuko den webgune berriaren aurkezpena

- Webgunea aurkezten du **Astaldi Foroak, Euskadiko 17 astialdi eskola eta 10 federazioz** osaturiko lan taldeak eta bere atzean Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako 13.000 gazte baino gehiago mugitzen dituen
- Kurtso honen hasieran **ekintzak antolatuko dira unibertsitateetan ezagutzera emateko** eta astialdiko ikastaroen inguruko **informazio guztia eskainiko da: begiralea, zuzendaria edo animatzaile soziokultura izateko**

Vitoria-Gasteiz, 2014ko irailaren 4a. Astialdi Foroak, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak koordinatzen duen lantaldea, non **17 euskal astialdi eskola eta 10 federazio** parte-hartzen duten, **webgunea izango du lehen aldiz: www.astialdiforoo.org**. Atari berri hau erreferentea bilakatuko da **aisialdi hezitzaileko albiste eguneratuak eta ekintzak eskainiko dituelako** baita gure lurraldean esparru honetan mugitzen diren elkarte eta eragile sozialen informazioa ere; hauen atzean, **13.000 gazte baino gehiago ibiltzen dira** Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan, askok euren denbora libre modu boluntarioan ematen dutelarik.

Euskaraz eta gazteleraz eskuragarri egongo den tresna berri honen helburua, **elkarte hauek urtean zehar egiten duten lana jendeari ezagutzera ematea da**. Gainera, ataria hau eskolekin harremanetan jartzeko bidea izango da, baita udako ekintzak eta aisialdi hezitzaileko formazio guztia ezagutzeko lekua ere eta azken albisteak, iritziak eta hausnarketak partekatzeko txokoa. Urtearen garaiaren arabera, webguneak informazio zehatza emango du; adibidez, apirilean elkarrekin udari begira antolatzen dituzten ekintzen berri emango dute eta, kurtso hasieran, formazio ikastaroena. Horrela, **iraila honetan, astialdiko ikastaroen informazio guztia emango da**: Euskadin haur eta gazteen **begiralea, zuzendaria edo animatzaile soziokulturala izateko dagoen eskaintza guztiarekin. 40 ikastaro baino gehiago dira**, bakoitza bere ezaugarriekin, eta aukeraketa errazteko, bilatzaile aurreratu bat martxan jarri da.

Webgune berri honen bitartez, hiru lurraldeetan antolatzen diren foro hauen **lanari dagokion balorea eman nahi zaio eta ematen diren pausoak jendaurrean plazaratu**. Foro hauek hilabetero elkartzen dira **komunean dituzten arazoei irtenbideak ematen saiatzeko**. Halaber, Astialdi Foroan elkartzen diren entitateak koordinatzen dira aisialdi hezitzaile eta

www.egk.org



gazteen beharrak aho batez defendatzeko administrazio, instituzio eta euskal talde politikoen aurrean.

WEBGUNEA ZABALTZEN

Komunikabide eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko webgunearen bidez (www.egk.org) ezagutzera emateaz gain, EGK-k eskolak, bere kide diren elkarteak eta beste eragileak gonbidatzen ditu **webgune berri hau Facebook eta Twitteren zabaltzera**, bigarren honetan **#astialdiforoa** hashtag-a edo traola erabiliz.

Bestalde, **bi egunetan ekintzak antolatuko dira** Astialdi Foroan parte-hartzen duten elkarteekin batera **aisialdi hezitzaileko formazioa jakitera emateko asmoz eta, bide batez, webgune berria** UPV/EHUko ikasleen artean zabaltzeko. Lehenengoa hurrengo astean Leioako kanpusean antolatuko da eta bigarrena, irailaren 18an, Vitoria-Gasteizkoan.

Hurrengo egunetan, zuekin jarriko gara berriro harremanetan ekintza hauen inguruan xehetasun gehiago emateko.

+info eta elkarrizketak:
688 67 59 32 / 945 22 06 01
Iñaki Goikoetxea Arrufat
EGK-ko komunikazioa